

Garazi Irastorza Arza

B maila • 2 saria

Garazi Irastorza Arza naiz. 2003an Altzagan jaio nintzen eta bertan bizi naiz. Orain, Ordiziako Jakintza Ikastolan DBH4. maila bukatzen ari naizen heinean, idaztea gustatzen zaidala konturatzen hasi naiz, eta horregatik aurkeztu naiz Beasaingo Igartza Idazlehiaketara. Dantza eta musika ere oso gogoko ditut, baita parranda eta lagunak ere.



ZU

Nahi duzuna jantzi
eta mehatxua.
Etxera berandu iritsi
eta garrasia.
Ez duzula maite onartu
eta ukabilkada.
Eta ukabilkada gehiago.
Bukatzen ez diren ukabilkadak.
Ukabilkada horietatik
arrastoa.
Bat ez, asko.
Eta ez azalean bakarrik,
bihotzean ere bai.
Estaltzeko gauza ez izan
eta azkenean labankada.

Beste bat gehiago.
Beste bat gehiago
mundu honetatik at.
Beste bat gutxiago
mundu honetan.

Ez utzi inori
zu mendean hartzen.
Zuk menderatu zeure burua,
zuk,
zugandik, zuretzako,
zuregatik, zuregan,
beste inor jokoan sartu gabe.
Zu zarelako
ez beste inor.
Zu ere zerbait zarelako.
Zerbait baino gehiago.
Askoz gehiago.

Maitatu zarena,
urre zara eta.